



Abenturaz blai

Jolasak, egunpasak, irteerak... Primeran pasatzen ari dira Udako Txokoetako haurrak. San Ferminak ospatuko dituzte gaur / 6-7

TXINTXARRI

Ikasturteko azkena

Kaxkarro eta Oria-Gaineko lursailak hizpide uztaileko ohiko udalbatzarrean / 2

Bihar iritsiko da musika herriko auzoetara: Kultur Kale zikloak sei emanaldi izango ditu / 4

Intza Fernandez eta Aiora Belartietara arraunlariak Euskotren Liga ari dira jokatzeko / 10



**USURBILGO
LANBIDE
ESKOLA**
CIFP USURBIL LHII

MATRIKULA

943 36 46 00 www.lhusurbil.eus

UZTAILAREN 11tik 17ra

ORDUTEGIA
08:00 - 18:00
OSTIRALA
08:00 - 14:30

DOKUMENTAZIOA:

- NAN
- Ikasketa agiria
- Karnet argazkia
- Kontu korrante zenbakia





Asteheneroko udalbatzarreko bozketetako bat, Oria-Gain eremuan etxebizitza sozialak eraikitzeari buruzkoa. TXINTXARRI

Kaxkarro eta Oria-Gain hizpide udalbatzarrean

Ikasturteko azken ohiko udalbatzarrerera bildu da korporazioa astelehen arratsaldean. Azkarra izan da saioa, ordu bete baino gutxiagokoa, baina mamitsua. Zazpitik sei gai landu dituzte; mahaitik at utzi dute baratze ekologikoena, arazo teknikoengatik

Iñigo Gonzalez Sarobe

Astelehen arratsaldean elkartu zen udal korporazioa azkeneko pleno aretoan, abuztuko etenaren aurretik. Saio azkarra izan zen, baina mamitsua: Kaxkarro eta Oria-Gain lursaileri buruz aritu ziren, luze eta zabal. Zinegotzi guztiak joan ziren, Elkarrekin Lasarte-Oria Puede alderdiko Tania Rodriguez izan ezik.

Udalaren eratze akta onartu ostean, 2019ko aurrekontuei buruz aritu ziren: kreditu gehigarrien bigarren espedientea, hain justu. EH Bilduko bozeramaile Jon Martinek hartu zuen hitza, jakiteko zergatik bideratu dituen udal gobernua sei milioi euro bertara. EAJko kide Estitxu Alkortak galdetu zuen diru hori herriko eskoletan lanak egitera bideratu ote zen.

Jesus Zaballos alkateak argitu zuen afera. Diru partida hori bideratu dute Kaxkarroko lursail baten desjabetzara, "badaezpada ere". 2004. urtean, orduko gobernua erabaki zuen "parke

berde bat" egitea han, baina ez zen jabeekin harremanetan jarri eremu hori eskuratzeko, eta horiek eskatu zuten prozedura hasia 2016an. Lursailak 5 milioi euro balio zituela esan zuten; udalak, aldiz, 580.000 eurotan baloratu zuen. Auzitegi Gorenak jabea eman die arrazoia, baina kontua ez da bukatu: prozedura deusezteza eskatu du udalak.

Alokairu soziala Oria-Gainen

Lasarte-Oriako Udalak eta Eusko Jaurlaritzak hitzarmen bat egin dute Oria-Gain eremuan ehun etxebizitza sozial eraikitzeko, udalbatzarrak hala adostu ostean.

Akordio horren aurka bozkatu du EH Bilduk, uste duelako ghetto bat bihurtu daitekeela auzo hori:

**ORIA-GAIN EREMUAN
100 ETXEBIZITZA
SOZIAL ERAIKITZEA
ONARTU DU
UDALBATZARRAK**

"Ez dauka oinarritzko zerbitzurik, garraio publikoa ez da bertara iristen... Badaude aukera hobeak herrian etxebizitza publikoa sustatzeko", esan zuen Martinek.

Hirigintza zinegotzi Agustin Valdiviak (PSE-EE) erantzun zion. "Alokairu sozialaren alde egiteko aukera ona dela uste dugu". Azaldu zuen Europar lehiaketara aurkeztu duela egitasmoa Eusko Jaurlaritzak, eta "arkitekto asko" aurkeztu direla, auzoak eduki ditzakeen gabeziak konpontzeko. "Guri arrazoia ematen ari zara", esan zion Martinek. "Proiektu definitiboak aseko ditu Oria-Gainen beharrian guztiak", bukatu zuen Valdiviak.

Obra publikoetako ingeniari tekniko lanposturako hizkuntza eskakizunak ere onartu zituen udalbatzarrak. "Egokia iruditzen zaigu hirugarren profila eskatzea", adierazi zuen EAJko bozeramaile Jon Antxordokik. Baratze ekologikoaren gaia ez zuten landu, arazo teknikoengatik.



Gorputza mugitzeko aukera izango da aurten ere zumba saioan. TXINTXARRI

Karmengo Amaren jaietarako prest da Oria auzoa

Egun osoko egitaraua antolatu dute. Adin guztietarako ekintzak egingo dituzte auzoko zaindariaren ohorez

Txintxarri

Uztailaren 16a, asteartea, Karmengo Amaren eguna. Oriatarren egutegian gorritz markatua dagoen eguna da, auzoko zaindariaren eguna egun handia baita. Urteak dira auzotarrek hitzordu garrantzitsu hori ospatzen dutena, eta aurten ere, La Esperanza Bizilagun elkarteak hainbat erakunderen laguntzarekin egun osoko egitaraua antolatu du astearterako.

Ttiriki Ttarraka trikitilari elkarteko kideek esnatuko dute auzoa haien doinu alaiekin.

Tailerrak, buruhandiak, ur-pistola eta puxika gerra, askaria... haurrentzako jarduerak ugari izango da egunean osoan auzoan eta Brunet-Enea lorategian.

Helduek, berriz, usadiozko meza izango dute Karmengo Amaren kaperan eguerdian eta hori amaitzean, pintxo batzuen

inguruan solasean egoteko aukera izango dute auzotarrek.

Iazko arrakasta ikusirik, toka txapelketaren bigarren edizioa egingo dute bazkalostean.

Oriako Sorgin Dantzak ere izango du bere protagonismoa. Duela mende bete baino gehiago Brunet fabrikako langileek ezagutzera eman zuten dantza gaur egunera arte mantendu da. Helduen zortzikoteko kideak Karmengo Amaren kapera ondotik aterako dira kalejira Brunet-Enea lorategira eta bertan saiotxo bat eskainiko dute.

Honez gain, gorputza mugitzeko aukera ere izango dute arratsaldean Brunet-Eneako lorategian. Lehenik, zumba saioa izango da Saito gimnasioko kideen eskutik, baita Kangoo erakustaldi bat ere. Eta egunari amaiera emateko Ibai Berriak taldearen doinuez gozatuko dute.

146 familiek Europako Funtseko janaria jaso dute

Babarrunak, kontserbak, esnea, pasta... 8.928 kilo janari banatu ditu udalak. Gurutze Gorriko boluntario-talde batekin elkarlanean egin du banaketa ekainean. Herriko 146 familia izan dira onuradun. Guztira, 380 pertsona. Elikagaiak pertsona behartsuenei laguntzeko dagoen Europar Funtseko eman dizkio udalari.

Banaketa egin baino lehen, gizarte langileek 146 familiak aztertu dituzte, programa honetako onuradun izateko beharrezkoa baita udaleko tasen eta prezio publikoen salbuespen eta hobarien zerrendan egotea eta aldeko txosten sozial bat izatea. Ekimenean izena emateko udaletxeko erregistro orokorrean eskaera-orri orokorra bete behar da.

Bestalde, udalak eskerrak eman nahi dizkie Gurutze Gorriko kideei egindako lanagatik.

Aldarrikapen pedalkadak Luhusotik Gernikara

Orain Presoak bizikleta itzulia antolatu du Sare elkarteak aurten ere, uztailaren 19tik 21era. Ekimenarekin bat egin du Lasarte-Oriako Sarek: gaur zortzi Errekaldera joateko deia egin dute, txirringa eta kaskoa hartuta. 16:45ean aterako dira Okendotik

Iñigo Gonzalez Sarobe

Pedalei eragin bitartean, euskal presoek eskubideen urratzea salatuko du Sare elkarteak aurten ere. Orain Presoak bizikleta itzulia antolatu du uztailaren 19tik 21era, datorren asteko ostiraletik igandera. Luhusotik Gernikara joango da aurtengoa, hiru etapatan banatuta: Luhuso-Zarautz, Zarautz-Lekeitio eta Lekeitio-Gernika. "Gizarte zibilaren konpromisoaren eredu bilakatu da Luhuso; bizikidetzaren eta bakearen sinbolo da Gernika", azaldu dute antolatzaileek.

Ekimenarekin bat egin du Lasarte-Oriako Sarek. Uztailaren 19an, ostirala, Errekaldera joateko deia egin diete herritarrei, "martxa babestera". Hitzordua ere jarri dute: 16:45ean Okendo plazan. "Udan ez da ezer gelditzen, ez da ezer aldatzen: zerbait egin nahi dugu euskal presoek eskubideen alde". Zarautzen bukatuko da lehenengo etapa hori. Nahi izanez gero, haraino joan daitezke parte hartzen duten lasarteoriatarak. Beste bi aukerak, hauek: Oriara joan eta gero trenez bueltatu, edo, bestela, Usurbileraino, eta Zubietatik Lasarte-Oriara itzuli lasai-lasai bizikletan. "Ez ahaztu kaskoa!", ohartarazi zuen txirrindulari gazte batek aurkezpen



Hainbat herritarrek bat egin dute Orain Presoak bizikleta itzuliarekin. TXINTXARRI

prentsaurrekoan. Okendo plazan elkartu ziren hainbat herritar astelehen arratsaldean, ekitaldiari atxikimendua adierazteko.

Bizikleta itzuli osoa egiteak 50 euro balio ditu. Egun bakar batean parte hartzeak, berriz, 20. Antolatzaileak arduratuko dira janariak eta lo egiteko tokiak, etapaz etapa. Datorren asteartean itxiko dute izen-ematea.

Hamahiru itzuli astebetean

Orain Presoak bizikleta itzulia antolatzeko motiboak zeintzuk diren azaldu du Sarek: "Urratsak egin nahi ditugu konponbidearen bidean; Luhuso eta Gernika lotu

nahi ditugu aldarrikapenez beteriko itzuli batekin".

Euskal presoek egoera islatzen duten hainbat datu eman dituzte. Esate baterako, 254 euskal preso daudela gaur egun. Gehienak, estatu espainiar eta frantsesean. Jaioterritik 400 kilometro baino gehiagora daude espetxeratuta bostetik lau.

Presoek bakarrik ez, euren senideek ere jasan behar izaten dute dispersio politika. Sareren kalkuluen arabera, 110.112,03 euro gastatzen dituzte senide guztiek aste bakar batean, eta munduari hamahiru itzuli pasatxo eman.



MIKEL YARZA

Paperezko babeslekua

Oso gogoan dut Ekain liburu-dendara joaten nintzeneko garaia. Haren ateak igaro eta leku berezi batean sentitzen nintzen, paperezko babeslekuan. Aldizkari eta liburu artean nagusitu zen nigan zirrara, ezagutzeke nituen hamaika mundu horren eskura edukitzearen zirrara. Baina pasio hori, tintaz beteriko paperek baino, zeuk helarazi zenidan, Iñaki.

Liburu bila gerturatu ohi nintzen irrikaz, batzuetan ikastolarako irakurri behar genituelako, besteetan, aldiz, herri liburutegian ezin nezakeelako topatu gogo biziz espero nuen nobela berria. Noizean behin atsekabetuta ere agurtzen zintudan, eskatutakoa eskura izateko pare bat aste itxaron beharko nituela esaten zenidanean. Eleberriak irakurri ahala entzuten nituen adi-adi zure gomendioak, izan ere, dendako atea igarotzen nuen bakoitzean boteretsuagoa bilakatzen zen bertan topa nitzakeen unibertso berriekiko erakarpina. Bisita bakoitzean, ahots sakon, leun eta patxadatsuz azaltzen zenizkidan intereseko nituen istorioen tankerako autore eta obrak. Nire irudimena elikatzen eta aberasten zenuen hitzez hitz, orrialdez orrialde.

Irakurzaletasuna, jakin-mina eta ezagutzaren gotorleku bilakatu zenuen Pablo Mutiozabal kaleko egoitza txikia. Eta orain, espazioa eta zu zeu desagertu zaretan honetan, faltan botatzen zaituztegu. Izan ere, azkenerako, kutsu magikoa hartu zuen Ekainek askorentzat, haren ateak zeharkatzea: ekintza seinlatu. Eta horrexegatik miresten dugu horrenbeste egun, Lasarte-Orian liburu-dendarik gabe geratu garen honetan. Mila esker, Iñaki, oroimenean bada ere, babeslekua bizirik mantentzen jarraitzeagatik.

Eta orain, entseatzera

Santa Ana parodian parte hartuko duten aktoreek herenegun arratsaldean jaso zituzten gidioak. Entseatzea dagokie orain: datorren astelehenean egingo dute lehen saioa, kultur etxean, 18:30etik 20:30era.

Ttakunenean egin zuten paper banaketa bilera. Hogeitabat pertsona joan ziren. Uztailaren 26an izango da parodia, 22:30ean.



TXEMA VALLES

txintxarri aldizkariak

banatzaileak behar ditu

ostiraletan herrian aldizkaria banatzeko.

Kotxea edukitzea eta lasarteoriatarra izatea lehenetsiko da.

Deitu 943371448 telefonora edo bidali zure kurrikuluma: txintxarri@txintxarri.eus

Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria





XpressionK-ko Jokin Telleria, Txus Alonso Gazteria saileko burua, eta Jesus Zaballos alkatea jaialdiaren aurkezpenean. TXINTXARRI

Kultur Kale Zikloak musika dakar auzoetara

Aurten sei kontzertu egingo dituzte Lasarte-Oriako beste hainbeste txokotan uztailean eta irailean. Askotariko estiloak lantzen dituzten taldeak aukeratu dituzte antolatzaileek. Apalatxe taldeak emango du lehen kontzertua, larunbatean Tximistarretan

Txintxarri

Bueltan da Kultur Kale Zikloa. Jada ohiko bilakatu den musika jaialdiak sei kontzertu eramango ditu atari zabaleko beste hainbeste txokotara. Jesus Zaballos alkateak, Txus Alonso Gazteria saileko buruak eta antolaketaren ardura izan duen XpressionK ekimeneko kide Jokin Telleriak ezagutarazi dute egitaraua. Hain zuzen ere, kontzertuetako batek kokagunea izango den Andapa kalean.

Askotariko estiloak, hainbat hizkuntza, beste herrialde batzuetako musikariak... aniztasuna izan dute kontuan talde zerrenda osatzean. Uztailean eta irailean egingo dituzte kontzertuak, konturatu baitira abuztua ez dela hilabete aproposena. Ia denak larunbatean egingo dituzte, Oriakoa izan ezik. Basaundiko festen amaierarekin bat eginda eta San Ignazio eguna jaia dela baliatuta, asteazkenean egingo dute hilabeteko azken kontzertua. Gainera, beste guztiak baino ordu erdi lehenago hasiko da, 19:30ean. Apalatxe

Egitaraua

Uztaila

- **13.** Apalatxe. Tximistarreta, 20:00.
- **20.** Filipe Court Duo. Andapa kalea, 20:00.
- **31.** Adara y los nylon. Basaundi bailara, 19:30.

Iraila

- **7.** Mikel Karton. Zabaleta auzoa, 20:00.
- **14.** Sara Mansilla. Atsobakar auzoa, 20:00.
- **21.** Alitruta. Okendo plaza, 20:00.

talde euskaldunak abiaraziko du zikloa. Folka eta punka akustikoan entzuteko aukera izango da Tximistarretan. Astebete geroago, Filipe Court Duo bikoteak bossa-nova, funk eta doinu brasildarrez beteko du Andapa kalea. Hilaren 31n, berriz, Adara y los nylon

taldearen pop-rock-ak hartuko du Oria auzoa. Etenaren bueltan, irailaren lehen larunbatean Mikel Karton kantautoreak euskaraz sortutako abestiak eskainiko ditu Zabaletan; eta astebete geroago, Sara Mansillak gauza bera egingo du Atsobakarren soul eta funk ukituko kantekin. Azken kontzertua Okendon egingo du Alitruta taldeak, estilo ugariko musikaz beteta.

Telleriak ohartarazi du eguraldi iragarpene txarra bada, hiruzpalau egun lehenago data aldatuko dutela, "espero dezagun urrira edo azarora ez luzatzea!".

Urteotan Kultur Kale Zikloa "ondo funtzionatzen" ari dela uste dute arduradunek, Alonsoren iritziz, "uda garaian auzoei bizia emateko modu polita da". Egitasmoak 5.000 euroko aurrekontua du, BEZa barne. Zinegotziak herritarrek animatu ditu kontzertuetara joatera, "formatu txikiko kontzertuak badira ere, kalitate altua baitute, eta arratsaldea pasatzeko beste modu bat da".



TXINTXARRI

Su artean ikasten, Semblanten

Familiei bideratutako sukaldaritza tailerraren lehen saioa egin dute larunbatean Semblante Andaluz elkarteak. Auzolaguneko Jon Kepa Barranco sukaldariaren azalpenak adi jarraituta, hainbat lagun aritu dira su artean. Amaieran, prestatutakoa jaki goxoak dastatu dituzte. Udalak antolatutako ekimena herriko hainbat elkartetan aurrera eramango dute.



TXINTXARRI

Oihalaren beste aldeko istorioak

Txubio Fernandez eta Miguel Garces aktoreek Okendo plaza agertoki bilakatu dute ostiral arratsaldean *Al otro lado* ikuskizunean. Antzokietako oihala kalera atera eta haren atzetik pasatzen ziren lasarteoriatarrek protagonista zituzten fikziozko hamaika istorio asmatu dituzte.



TXINTXARRI

Abian da XV. Dantza Zirkuitua

Ostegun arratsaldean hasi dute XV. Dantza Zirkuitua *Fugas* eta *Meeting point* ikuskizunek. Okendo plazan egindako bi ikuskizunek giza harremanak dituzte ardatz. Lehenak, talde eta norbanakoen artekoak; bigarrenak, berriz, elkar ikusteko guneak eta horietara iristeko zeharkatu behar diren putzuak.



Artea ikasbide programan parte hartu duten gaztetzok Bilboko Guggenheim museoa ezagutzeko aukera izan dute. Irudian egitasmoko beste zenbait ikaslek egindako lanen artean daude. SASOETA-ZUMABURU IKASTETXEA

Sasoeta-Zumaburutik Guggenheimerara

Lehen Hezkuntzako 3. mailako ikasleek *Artea ikasbide* egitasmoan parte hartu dute amaitu berri den ikasturtean. Manu Muniategiandikoetxea artistaren laguntzarekin egin duten obra irailaren 15era arte ikus daiteke Bilboko museoko Hezkuntza gelan

Txintxarri

Plastika eta eskulanetatik harago, joko eta jarduera artistikoen bidez, artista bilakatu dira Sasoeta-Zumaburuko ikasleak. Bilboko Guggenheim Museoa sustatutako *Artea ikasbide* egitasmoan parte hartu dute 3. mailako hogeita neska-mutilek amaitu berri den ikasturtean. Bederatzi ikastetxek parte hartu dute, artista batek lagunduta. Lasarteoriatarrek Manu Muniategiandikoetxea eskultore bergararra izan dute bidaide.

Programaren xedea eskola curriculuma aberasteaz gain, bertako gaiak ikasteko bestelako bideak eskaintzea da. Sasoeta-Zumaburuko arduradunek Agenda 21eko gaiak lantzeko baliatu dute, birziklapena eta kontsumo jasagarria ardatz hartuta. "Birziklatutako materialari hainbat erabilera eman dizkiote", laburbildu du Sara Carte Sasoeta-Zumaburuko ikasketaburuak. Inguruarekiko errespetuaz gain, aldi berean, bestelako balioak barneratu eta jorrazteko parada ere izan dute. Hala nola, talde lana edo munduari begiratzeko norberaren sormen ikuskera.

Urritik maiatzera bitartean, 20 saio egin dituzte Muniategiandikoetxearekin. Astero etorri da plastika orduetan, diseinatutako tailerrak dinamizatzen. Argazkilaritza, pintura nahiz eskultura bezalako diziplinetan aritu dira, ikusten dutenari buruz hausnartuz. Sortu ere egin dute. Bergararrak zuhaitzak kimatu ondoren soberan geratutako adarrekin egitura original bat eraikitzen animatu zituen gaztetzok. Bertan, marrazkiak, moldeak, beste artista batzuen lanak eta beste ikasle batzuek utzitako obrak eseki dituzte.

Artea bertatik bertara ezagutu

Horrez gain, bi bidaia egin dituzte Bilbora. Lehena, Guggenheim ezagutzeko. "Artea zer den ikusi zuten, ez dela estatikoa, behin gauza bat ikusten duzu eta hurrengoan beste bat. Aldatu egiten dira erakusketak... Performance bat zer den ere ikasi dute", gogoratu du Cartek. Bigarrena, berriz, obra eramateko. Orduan, egitasmoan parte hartu duten beste ikasleak eta haien lanak ezagutzeko aukera ere izan zuten. Ikasketaburuaren esanetan,

"pozgarria" izan da gaztetzoezat beraien lana halako toki batean egotea eta beste partaideekin partekatzea. Guztira, EAEko 6 eta 12 urte bitarteko 209 neska-mutilek izan dute aukera aurtan.


Sortu dituzten artelan originalak museoko Hezkuntza gelan egongo dira irailaren 15era arte. Erakusketa lau atal tematikotan banatu dute: Letrak, hizkuntza edo idazketari lotutako obrak; Birziklapena eta Kontsumoa, horren inguruko

gogoetatik sortutako hainbat diziplinetako piezak; Mapak eta arkitekturak, tokiko aireko bistak, ibilbideak eta maketak; eta azkenik, Argazkiak eta filmak, paisaian eta haren protagonistengan egindako interbentzioak, *stop motion* animazioak, performanceak eta bestelako lanak.

Artea ikasbide programa New Yorkeko Guggenheim museoa

ZUHAITZ ADARREKIN EGITURA BAT ERAIKI ETA HAINBAT LAN ESKEGI DIZKIOTE

ernatu zen 1970ean, krisiaren ondorioz lehen hezkuntzako ikastetxe publikoetan arte ikasgaia kendu zutenean. Natalie K. Lieberman mezenasak abiarazi zuen, eta museoaren inguruko artistek doan ematen zituzten eskolak. Bilboko museoak 1998an ekarri zuen EAera. Sasoeta-Zumaburu ikastetxeak egitasmo honetan parte hartzen duen bigarren aldia da. Estreinakoa duela ia hamarkada bat izan zen, artista bera lagun zutela, gainera. "Manuk gogoan zuen hemen izan zela", aipatu du Cartek. "Pribilegioa" izan da aukera eta "gustura" errepikatuko lukete, nahiz eta zaila izango dela jakin.



Eskulturaz gain, argazkiek eta bestelako lanekin osatu dute erakusketaren eremua. SASOETA-ZUMABURU IKASTETXEA

Barrea eta izerdia, Udako Txokoetan

Aspertzeko astirik ez dute

Lasarte-Oriako haur eta gazteak ederki ari dira gozatzeko Ttakun Kultur Elkarteak antolatutako Udako Txokoetat. Uztailaren 2tik euskal jaia, esperimentu zientifikoak, irteerak, Atsotak zahar etxera bisita, kirola, dantza, antzerkia... egin dituzte Lasarte-Oriako erakunde eta elkarte ezberdinek lagunduta. Baina gozamena ez da herrira bakarrik mugatzen, Donemiliagako kanpaldietan ere primeran baitabilza. Milaka abentura ari dira bizitzen.

Aste honetako egitarauan aldaketa batzuk egin behar izan dituzte, astelehenean eta asteartean egin zuen eguraldi txarra tarteko. Horrek ez ditu haur eta gazteak atsekabetu. Atzo eta gaur Sasoeta auzotik ibiliko dira Busti blai! egiteko ur eske. Txikienek, berriz, Okendo plaza txuri eta gorri jantziko dute, sanferminetako entzierro handian. Zaindariari abestu eta suzuria botako dute. Txokoetako neska-mutilen lasterketa biziak lruñekoak adinakoak izango dira.



Udako Txokoetako HH5 mailako haurrak hockeyan eta bola jokoan aritu dira. Txikienek psikomotrizi...



Pilota, taloak, bertsoak eta irrintziak. Euskal Jai berezia egin dute gazteek Zabaleta Auzolan elkarteko lagunekin. TXINTXARRI



Egun beroetan zer hobe ura baino. Ur eske ibili ziren Sasoeta auzoan eta auzotarrek ederki erantzun zute...



tate saioak izan dituzte. Trebeak direla erakutsi dute guztiek. TXINTXARRI



Antzerkia egiteko teknika ere behar dela ikasi dute Kukuka Antzerki eta Dantza eskolako kideen saioan. TXINTXARRI



Areto-futbolean lehen pausoak eman dituzte gaztetxoetako batzuek Eguzki Areto-Futbol taldearen eskutik. TXINTXARRI



n. Gaur beste talde bat izango da Busti Blai! egiten Sasoeta Sasoian elkarteak lagunduta. TXINTXARRI




LH 5. eta 6. mailako gaztetxoak primerako esperientzia bizitzen ari dira Donemiliagan. Larunbatean datoz bueltan. TXINTXARRI

PLAZAN BAZAN

Bilatu

Uharte galduetan uste baino gauza gehiago aurki daitezke. Hemen zenbatuta ikusten dituzun elementu asko irudi nagusian ere badaude, eta beste batzuk, aldiz, ez. Bereiz itzazu.



Esaerak

Eman esaldi bakoitzari dagokion jarraipena, euskal esaera zahar bana osa dezaten.



Gogozko tokian...

- ...azterketarik ez
- ...aldaparik ez
- ...maitasuna da nagusi
- ...etsaiak lagun


Kaiola erosten duenak...

- ...hegaztiak nahigabetzen ditu
- ...dirua du barra-barra
- ...txoria gogoan
- ...kantuaz gozatu nahi
- ...katua lagun



SUDOKUA

Osa ezazu sudokua, BI AUTO hitzak osatzen dituzten hizkiak erabiliz (B, I, A, U, T eta O). Gogoratu, letra bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.



	I	T	O	B	A
			I		
I		O			B
B			T		O
		I	U		
	O	U	B	A	




Hamarrekoa

Aurki itzazu bi irudien artean dauden 10 aldeak.



Marraztu

Itsaspean ere gauza asko aurki daiteke: itsaslaminak, arrainak, olagarroak, altxorrak, urpekariak... Marraztu ezazu nahi duzuna, eta gero, margotu.





Arraun Lagunakoko kideak Lekeitioko banderarekin. Belartietan, lurrean eskuinetik lehena da. DONOSTIA ARRAUN LAGUNAK



Hondarribiak martxoan jakin zuen Euskotren Ligan lehiatuko zela, berriro ere. HONDARRIBIA ARRAUN ELKARTEA

Euskotren Ligaren bila

Lau traineru ari dira lehia aurtengo denboraldian eta bitan lasarteoriatarrak daude: Hondarribia Bertako Igogailuak eta Donostia Arraun Lagunak. Azken horrek, III. El Correo-Kutxabank bandera irabazi du, ekainaren 30ean eta bigarren da sailkapenean

Txintxarri

Euskotren Liga hasi da. Ekainaren 29an egin zen lehen ziaboga Santanderren eta Zarautzen izango da azkena, uztailaren 18an. Hamalau jardunaldi jokatu dira uztaila eta abuztuko asteburuetan eta irailean, Kontxako banderaran ostean, play-offa egongo da jokoan.

Txapela eskuratzeko lehia lau talde ari dira: Orio Babyauto, Donostiarra Arraun taldea, Donostia Arraun Lagunak eta Hondarribia Bertako Igogailuak. Eta norgehiagoka horretan bi herritar daude Intza Fernandez eta Aiora Belartietan. Fernandezek bigarren denboraldia du Hondarribia Bertako Igogailuak taldean; Belartietak, berriz, Donostia Arraun Lagunak taldeko batean estreinakoz ari da. Harrobitik igo da gaztea.

Lau norgehiagoka ikusi ahal izan dira aste hauetan: I. Repsol bandera, III. El Correo-Kutxabank bandera eta bi jardunalditan jokatu den II. Bandeira da Coruña.

Lau probetatik hirutan Orio Babyauto izan da garaile. Lehengo asteburuko II. Bandeira da Coruña erakutsi du Ligan menderatu beharreko hautagaia dela. Nagusitasun handiz irabazi ditu bi jardunaldiak eta Ligako sailkapeneko lehen postuan da.

Baina Donostia Arraun Lagunak taldeak ez dizkio gauzak

**AIORA BELARTIETA
HERRITARRA
DONOSTIA ARRAUN
LAGUNAK TALDEAN
LEHIATUKO DA**

erraz jarriko, oso lehiakor agertu baita lehen hitzordu hauetan.

Hirugarren urtea du Donostiako eskifaiak maila honetan eta aurreko borrokatzeko gogoz dago. Oriotik oso segundo gutxitara amaitu ditu hainbat txanda Lugañene ontziak. Santaderren izan den I. Repsol banderaren zazpi segundoko tartea besterik ez du izan; A Coruña banderako lehen jardunaldian, berriz, bost segundo.

Donostiarrek, Lekeition

Lekeition, berriz, oriotarrak garaitu dituzte III. El Correo-Kutxabank banderaren.

Lehia estua izan da. Oriotarrak lehenak iritsi dira ziabogara eta donostiarrek lau segundo gehiago behar izan dituzte. Arraun Lagunak taldeak itzuleran ikaragarritzko luzea egin, eta Orio Babyautori aurre hartu

dio. Donostiarrak helmugaratu dira lehen eta bost segundoko aldea atera diete oriotarrei.

Donostiako eskifaiak eraman du bandera etxera eta Konstituzio plazan harrera ederra egin diete. Ligako lehen postuan izan da Orio Babyautorekin zazpi puntura berdinduta lehengo asteko jardunaldiak jokatu arte. Egun sailkapeneko bigarren postuan da Belartietaren taldea.

Maila jaitsiera eta igoera

Hondarribia Bertako Igogailuak taldeak, aldiz, ez du hasiera ona izan. Zeharkaz dago gainera denboraldi honetan Euskotren Ligan.

2018ko denboraldiako play-offa jokatu zuen irailean, Bermeon eta Portugaleten. Epaileen erabaki bat medio, hamar segundoko isuna jarri zioten Hondarribiako eskifaiari azken jardunaldian eta zail izan zuen maila mantentzea. Donostiarra Arraun taldeak hartu zuen bere lekua Ligan. Alabaina, Pasai Donibane ezustekoa eman eta bere plazari uko egiten ziola jakitera eman zuen martxoan. Hondarribia gonbidatu zuen Ligak hutsune hori betetzeko,

**HONDARRIBIA
ARRAUN TALDEAK
PASAI DONIBANEK
LIGAN UTZITAKO
HUTSUNEA BETE DU**

playoffeko bigarren taldea zen eta.

Ligaz kanpo ederki ibili da Hondarribiko taldea. Hainbat bandera eskuratu ditu denboraldi honetan Castro Urdiales Hiriko XXII. Bandera, esate baterako. Baina Liga hasierako hiru banderetan ezin izan da lehen postuetan egon. II. Bandeira da Coruña lortu du posturik onena lehen jardunaldian. Hirugarren postuan amaitu du Oriotik 22 segundora.

Gainontzeko lehiaketetan laugarren izan da eta sailkapen orokorrean ere postu horretan dago Fernandez taldekide duen eskifaia. A Coruña banderaren jardunaldian, laugarren amaitu du, 27 segundoko tartearrekin. Santanderren 1'12" galdu zituen eta III. El Correo-Kutxabank banderaren garailetik 25 segundora iritsi zen helmugara.

Oraindik hamar norgehiagoka geratzen dira Liga erabakitzeko. Orio, Sestao, Santurtzi, Getxo, Ondarroa... Kantauri itsasoko hainbat portutan ere izango du geldialdia Ligak. Lehia bizi egongo da aurreko Ligako garaikurra eskuratzeko.

Asteburu honetan, Donostian eta Castro Urdialesen izango dira Euskotren Ligako lau eskifaiak, IV. Donostiarra Kaiarriba-Amenabar Bandera eta IV. Caixabank bandera jokatzeko. Donostia Arraun Lagunak traineruak Donostiako uretan Oriori lidergoa kentzeko aukera ederra du larunbatean.

Futbola ez dago oporretan

Donosti Cup txapelketan parte hartzen ari dira Ostadar SKT eta Texas Lasartearra, herriko bi klubak. Sei talde aurkeztu dituzte urdin-beltzek, eta bakarria txuri-urdinek. Donostian bakarrik ez, Gipuzkoan, Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian ari dira futboleko mundu osotik etorritako 640 talde

Iñigo Gonzalez Sarobe

Futbola ez dago oporretan, festa ikaragarri batean baizik: Donosti Cup txapelketaren 28. edizioan. 640 talde ari dira jokatzeko aurten, inoiz baino gehiago. Horieta zozki herriko bi klubek dira: sei aurkeztu ditu Ostadar SKTk, eta Texas Lasartearrak bestea. Konpetitzen ari dira batzuk oraindik, lehiaketa igandean amaituko delako. Emaizta onak lortzea beharrez, esperientzia hartzea eta dibertitzea dira jokalarien helburu nagusiak.

Astebetean 1.600 partidatik gora jokatzeko ari dira futbolariak, 39 futbol zelaitan. Gipuzkoak dira 36, eta Nafarroakoak bi eta Ipar Euskal Herrikoa bestea. Lasarte-Oriako Michelin da horietako bat: 39 partida jokatzeko ari dira asteon.

Herriko taldeek ere jokatu dute Michelinen. Astearte goizean B13 kategoriako Texas aritu zen, Asnieres talde frantsesaren aurka. Yonatan Monroy eta Iñaki Martijaren mutilak gogotik saiatu ziren, baina 0-2 galdu zuten azkenean. Punturik pilatu ez zuten, eta multzoa bost taldekoa zenez, txuri-urdinek ezin izan zuten playoffer sailkatu.

Asteazkenean B18 adin tarteko Ostadar SKTren txanda izan zen. Lleidatik (Katalunia) etorritako Segrerekin neurtu zituen indarrak. Lo ekin zion neurketari, eta garesti ordaindu: bi gol jaso zituen hamar minutuan. Saiatu zen etxeko taldea gol alde murrizten, baina markagailua ez zen gehiago mugitu. Bi partida berdindu eta bat galduta, Playoff B fasera sailkatu da. Atlanta International School taldearekin neurtu zituen indarrak atzo; lerrook idatzi bitartean jokatzeko ari ziren oraindik. Irabaziz gero, gaur jokatzeko dituzte final laurdenak.

Beste bost talde

Urdin-beltzek beste bost talde aurkeztu dituzte txapelketara. Ibai Iribar gazteak entrenatu ditu B16 kategoriako jokalariek. Lehen fasean ez ziren oso fin ibili, eta Playoff B fasera sailkatu ziren. San Patricioren aurka jokatu zuten atzo arratsaldean, Errenteriako Beraun zelaian, eta 3-0 irabazi, Aitor Igarritzen (2) eta Jon Egurcegiaren golekina. Biarritzen aurka jokatu zuten atzo arratsaldean. Irabaziz gero, gaur jarraituko dute.



B13 kategorian ari da lehia Texas Lasartearra. Iñaki Martija eta Yonatan Monroy dira entrenatzaileak. TXINTXARRI

Lehian segitzen dute oraindik B15 adin tartekoek. Playoff B fasean ari dira horiek ere. Atzo goizean Larramendiren aurka jokatu zuten, eta 2-0 irabazi. Igor Graok eta Endika Izagirrek sartu zituzten urdin-beltzen golak. Aldizkari hau ixterako orduan, final zortzirenak jokatzeko ari

ziren Antigua Luberriren aurka. Irabaziz gero, gaur jokatzeko dute berriro.

Txapeldunen fasera ere sailkatu da talderik. Koke Arzallusek zuzentzen dituen jokalariek gazteak -B13 kategoriakoak- final zortzirenetara sailkatuta zeuden atzo arratsaldean. Goizean 2-1 garaitu zuten Eagles SC talde estatubatuarra. Golegileak, hauek: Ugaitz Igarritzen eta Gorka Arzallus. Arratsaldean jokatu zituzten final laurdenak Athletic Sant Justen aurka, 20:30ean.

Hamabi urteko jokalariek gazteek osatutako taldea ere sailkatu da txapeldunen fasera. Aldizkari hau inprimatzera bidali bitartean ari ziren final zortzirenetarako txartela poltsikoratu nahian, Martuteneren aurka, Hendaian. Ander Marcosek zuzentzen duen taldeak aukera asko ditu oso urrutiristeko.

Ostadarren seigarren futbol taldea, B11 kategoriakoa, Playoff B faseko final zortzirenetan dago. Gaur jokatzeko du partida hori, 09:00etatik aurrera, Donostian bertan. San Ignacioren aurka ariko dira Javi Martinezen jokalariek gazteak. Irabazteko, final laurdenetan sartuko dira.

Donosti Cup, Michelinen ere bai

Lasarte-Oriako Michelin go 39 norgehiagoka jokatzeko dira aste honetan. Gaur, azkeneko bostak: txapeldunen faseko bi eta Playoff B kanporaketako beste hiru.

Txapeldunen fasea

- G14 kategoriako finalerdietako bat, **11:15ean**.
- B18 kategoriako final laurdenetako bat, **15:30ean**.

Playoff B

- B16 kategoriako final laurdenetako bat, **10:00etan**.
- G16 kategoriako final laurdenetako bat, **12:15ean**.
- B16 kategoriako finalerdietako bat, **13:30ean**.



Asteazken goizean jokatu zuten B18 kategoriako Ostadar SKTk Michelinen. 0-2 galdu zuten Lleidako Segreren aurka. TXINTXARRI



Buruntzaldea IKTKo igerilariak ondo ari dira udako txapelketetan. BURUNTZALDEA IKT

Emaitza onak junior eta infantil txapelketan

Buruntzaldea IKTKo kideek Gipuzkoako Udako Txapelketan parte hartu dute asteburuan. Marka pertsonal eta domina ugari eskuratu dituzte beste behin igerilari gazteek. Leire Martin junior kategoriako sailkapen orokorrean hirugarrena izan da

Txintxarri

Asteburu oparoa izan dute Buruntzaldea IKTKo igerilariak. Irungo Azken Portu kiroldegian jokaturako infantil, junior eta absolutu mailetakoko Gipuzkoako Udako Txapelketan domina eta marka ugari lortu dituzte taldekideek.

Infantiletan, Nora Imaz, Eneko Elizasu, Unax Goenaga, Aintzane Sarobe, Nerea Santos eta Unai Somovilla aritu ziren. Imazek, lau probatan parte hartu zuen beste hainbeste marka pertsonal lortuta. Gainera, Espainiako gutxienezko egin zuen 100m. librekoan. Elizasu, berriz, 50m., 100m., 200m. eta 400m. libreko probetan aritu zen, eta lehenengoan ondu zuen bere marka. Goenagak, berriz, bitan hobetu zuen bere denbora, 200m. lau estilotan eta 400m. librean. Sarobek hiru marka pertsonal erdietsi zituen, 50m. bizkar, 100m. lau estilotan eta 200m. librean; azken horretan, Espainiako txapelketarako gutxienezko egin

zuen. Gainera, infantil mailako lehena izan zen hiruetan, absolutuko hirugarrena eta bigarrena, hurrenez hurren. Santosek 1.500m. librean infantiletako eta absolutuetako bigarren postuan amaitu zuen 18'47"14 denbora osatuta. Infantiletako postu berean amaitu zuen ere 800m. librekoan. 50m. bular eta 400m. librean, berriz, ez zuen podiumean egoterik izan. Azkenik, Somovilla 200m. bizkar, 50m. bizkar, 50m. eta 100 m. bular probetan lehiatu zen, marka eginez guztietan eta kategoriako bigarren bukatuta 200m. bizkar eta 100. bular ariketen sailkapenean.

Junior mailan, Leire eta Ainhoa Martin ahizpek parte hartu zuten,

**MARTIN AHIZPAK
ARIKO DIRA UDAKO
EUSKAL HERRIKO
ABSOLUTU ETA JUNIOR
TXAPELKETETAN**

emaitza bikainak lortuta, gainera. Leirek lau urrezko domina leporatu zituen eta junior kategoriako sailkapen orokorrean hirugarren postuan amaitu zuen. Lehena izan zen junior eta absolutu mailetan 200m. bular, 50m. bizkar, 200m. eta 800m. libre probetan. Ainhoa ere lau probatan lehiatu zen: 100m. eta 200m. libre, 100m. lau estilo, eta 50m. bular libretan.

Absolutu mailan, aldiz, Mikel Esnal lehiatu zen. 50m. eta 100m. librean eta 50m. tximeleta probetan aritu zen, baina ez zuen zortzerik izan.

Bestalde, taldea seigarrena izan zen 4x50m. libre proban, 1'47,16ko denborarekin taldeko marka hobetu zuten.

Leire eta Ainhoa Martin ahizpek burua Udako Euskal Herriko junior eta absolutu txapelketan dute jada. Gaurtik, ostirala, igandera artean lehiatuko dira Gasteizko Mendizorrotza udal igerilekuan, 10:00etatik 17:00etara bitartean.



Buruntzazpiko gazteak Espainiako txapelketako erlojupeko proban bikain aritu dira. E. POZO

Carbayeda eta Etxeberria, Espainiako txapelkun erlojupekoan

Euskadiko selekzioarekin lehiatu dira. Taldeko erlojupekoan eta bakarkako proban parte hartu dute

Txintxarri

Buruntzazpi taldeko txirrindulari Beñat Carbayedak eta Haimar Etxeberriak sekulako maila erakutsi dute Chesten (Valentzia) jokatu den Kadeteen Espainiako txapelketan. Bi proba jokatu dituzte Euskadiko selekzioarekin. Balantzea ezin hobea izan da: taldeko erlojupekoan urrezko domina kolporatu dute eta igandeko bakarkako lasterketan ere ederki aritu dira.

Erlojupekoan zortzi kilometroko ibilbidea osatu dute erkidego guztietako taldeek, Chesteko zirkuituari bi buelta emanez. Carbayedak eta Etxeberriak Haimar Erostarbe eta Haimar Galdosekin laukotea egin dute. Maila handiko lasterketa izan da, baina helmugan azkarrenak

izan dira, 10'17". Gaztela Leongo txirrindulariak sailkatu dira bigarren, hiru segundora; podiuma Kataluniak osatu du, irabazleengandik lau segundora helmugaratuta.

Igandean bakarkako lasterketan aritu dira. 54 kilometro zituen ibilbidea. Carbayeda ihesaldian sartu da beste lau txirrindularirekin. Bazirudien bost horietako batek altxako zituela besoak helmugan, baina tropelak kilometro baten faltan zapuztu ditu ihes egindakoen itzaropenak.

Dena den, Carbayedaren taldekide Etxeberria indartsu iritsi da bukaerako esprinterak, eta zortzigarren postuan sailkatu da. Ruben Sanchez madrildarrak irabazi du proba hori.

Lasterka, gaixotasun arraroak ezagutzera emateko

Lasarte-Oria Trail taldeko kideek lan bikoitza egin zuten uztailaren 6an, Usurbilgo Uxue trail lasterketan. Batzuk antolakuntza lanak egin zituzten probako aurreko egunetan eta proban bertan; besteek ordea, lasterketaz gozatu zuten.

Phelan-MC Dermind gaixotasunari buruz sentsibilizatzea du helburu ekimenak eta bi lasterketa jokatu dira: motza 11 kilometrokoa eta luzea, 22 km. Guztira, 300 bat lasterkari izan ziren irteera

puntuari, eta Lasarte-Oria Traileko kideez gain, beste hainbat herritar ere izan zen lehiari.

Proba luzean herritar azkarrena Beñat Los Arcos izan zen, 1:50:48, eta motzean, berriz, David Garcia Romero, 1:01:56.

Bestalde, asteburu honetan proba gogorretan parte hartuko dute Lasarte-Oriako mendi korrikalariak: Goierriko Bi Handiak eta Marimurumendi Marathon. Lehenak 88 kilometroko ibilbidea eta 6.000 metroko desnibel positiboa du; bigarrenak, berriz, 42 km. ditu eta desnibel positiboa 2.300 metrokoa da.


ZORION AGURRAK



Aroa
Zorionak maitia!



Aimar
Zorionak maitia zure 5. urtebetetzean! Asko maite zaitugu!! Zure gurasoak.




Izaro
Zorionak bihotza! 6 muxu haundi. Lorea, aitaxo eta amatxoren partetik.



Maite eta Manolo
Zorionak bikote!!! Badakigu asteburu berezia dela zuentzat. Ezagutu zineten egunean bezala, segi dantzan!!

EGURALDIA LASARTE-ORIAN


Ostirala, 12




Larunbata, 13




Igandea, 14




Astelehena, 15




Asteartea, 16



Asteazkena, 17



Osteguna, 18



JAIOTAKOAK

Eneko Ruiz Pavon. Uztailaren 6an.
Maddi Olaizola Moreno. Uztailaren 5ean.

HILDAKOAK

Alejandro Fernandez Caiza. Uztailaren 10ean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala, 12	GIL	EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00
Larunbata, 13	GANDARIAS-URIBE	ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52
Igandea, 14	GANDARIAS-URIBE	ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49
Astelehena, 15	ACHA-ORBEA	DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51
Asteartea, 16	URBISTONDO	LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74
Asteazkena, 17	ACHA-ORBEA	GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29
Osteguna, 18	ORUE	URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67
		GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00
Castilla-Larburu: Urbietea kalea 7, Hernani/ 943 55 29 41

Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira.
Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.cofgipuzkoa.com).

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK:
ERREGISTROA: 943 371 629
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184
KIROLDEGIA: 943 376 182
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 9 43 376 181
GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179
KIUB: 943 361 605
UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621
MUNTERI AEK: 607 625 233

LARRIALDIKO TELEFONOAK:
OSASUN ZENTROA: 943 007 960
DYA: 943 464 622
GURUTZE GORRIA: 943 363 953
UDALTZAINAK: 943 362 442
ERTZAINZA: 943 538 840
SOS DEIAK: 112

GUTUNAK

"Euskal Herrian ez zarete ongi etorriak"

G7 EZ PLATAFORMA

Abuztuaren 24tik 26ra, G7 izenez ezaguna den munduko herrialde boteretsuenen goi-bilera burutuko da buruzagien etorrerarekin militarki okupatua egongo den Biarritzen. Aurrez hitzartutako erabakien atzean isilarazten dituzten benetako aferak ez ditugu komunikabide hegemonikoetan entzungo. Hala ere, jadanik 40 urtez biltzen ibili ondoren, egiten dutena ezaguna zaigu.

Potentzia hauek egungo krisi desberdinetan erantzukizun zuzena dute eta horren ondorioak tamalgarriak dira. Gerrateak, hildakoak, zaurituak, errefuxiatuak, torturak, esplotazioa, lehengai eta baliabideen lapurreta, desberdintasunen sakontzea, miseria, gosea... zerrenda amaigabea da. Hori da multinazionalak eta gobernu inperialistek bultzatzen dituzten politiken atzean ezkututzen den errealitate tamalgarria. Bitartean, finantza-sistemak krisi kapitalistaz geroztik irabazi gehiago lortu ditu, gizartearen duintasunarekin jokatu, bizitzeko beharrezkoak diren baldintzekin espekulatu eta prekarietatea lege eginez. Estatuen zorra handituz

OHARRAK

Oñara irteera

Biyak Bat elkarteak Oñara, Burgosera txangoa antolatu du uztailaren 18an.

Goizeko 8:00etan aterako dira elkarte aurreko autobus geltokitik. Oñan San Salvador Monastegia bisitatuko dute eta herria ezagutzeko astia ere izango dute. Bazkaria Las Manzanas sagardotegian dastatuko dute.

Izena ematea elkarteko bulegoan egin behar da 10:30etik 12:30era. Irteerak 35 euro balio du bazkideentzat, bazkide ez direnek, berriz, 45 euro ordaindu behar dituzte.

Man proiekturako gauzen bilketa

Lasarte-Oriako Eliza ebanjelikoak CercAfrica erakundeak Boli Kostako Man herrixkak martxan duen proiekturako hainbat gauzen bilketa egingo du uztailaren zehar.

Mutilentzat arropa eta oinetakoak, maindireak, higiene intimorako produktuak, koadernoak, boligrafoak, arkatzak, puxikak... denetarik jasoko dute Andapa kalean duten egoitzan.

Ostegunetan 10:30etik 12:30era eta 18:00etatik 20:00etara eta igande arratsaldeetan 13:30etik 18:00etara egingo da bilketa.

bankuei laguntzen dieten bezala lurra ere negozio bilakatu dute, injustizia orokorra da sistema neoliberallean, izan ere, aberastasuna gutxi batzuen artean banatzen dute eta horrek herriak eta bertako biztanleak pobrezia eramaten ditu.

Klasismoa, arrazakeria eta patriarkatua bezalako pentsamenduak erreproduzitzen dituzte eta horrekin batera, eskubide desberdinak urratzen dituzte. Gehiengo sozialaren aurkako politikak sustatzen dituzte, sistema publikoa suntsituz eta interes pribatuak lehenetsiz. Jauntxo batzuek mundua puskaka banatzeko asmoz kudeatzen dituzten agenda eta bitartekoen aurrean, historian zehar azpikoek hauen murrizketak eta debekuak pairatu izan dituzten moduan, bai elkartasunak baita matxinadak ere mapako edozein herrialdeetan zapalkuntzaren aurpegia izaten jarraitzen du.

G7 EZ plataforma osatzen duten herri mugimendu, elkarte, sindikatu eta alderdi ezberdinek manifestazio nazionala deitu dute Biarritzen, uztailaren 13an 17.00etan, eta goi-bilera arte egingo diren beste mobilizazioetan parte hartzeko gonbidapena ere egiten dute.

Beste mundu bat posible delako, ozen oihukatuko dugu Euskal Herrian ez zaretela ongi etorriak.

ESKELAK JARTZEKO

TEL: 943 37 14 48
edo TXINTXARRI erredakzioan

► Eskela Txintxarri paperean: **80 €**
► Eskela Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: **90 €**

Txintxarri: doan eta euskaraz
Lasarte-Oriako etxe guztietan 943 37 14 48

AZOKA TXIKIA

LANA

ESKAINITZA
Banatzaile bila nabil, uztailearen 15etik abuztuaren 31ra lan egiteko. Uztailean beste banatzailearekin batera ariko litzateke, ibilbidea eta banatu beharreko produktuak ezagutzeko. Abuztuan bakarrik egingo luke lan. Orduetgia: 08:00etatik bukatu arte (normalean eguerdirako bukatzen da lana).

Game Masterra behar dugu Quantum Escape Room-en. Gaztea bazara, eta jokoak nahiz ihes gelak gustatzen bazaizkizu bidali CV info@quantum.eus helbidera

Zerbitzaria behar da Zubietako landexean lan egiteko. Telefonoa: 943 363 358.

ESKARIA

Orduka lan egiteko prest nago, haurrak zaintzen

edo garbiketarak lanak egiteko. Telefonoa: 722 178 177.

Persona bat eskaintzen da zaintzaile gisa lan egiteko orduka, gauetan... Ziurtagiria eta urtetako eskarmentua. 652 246 070.

SALEROSKETAK

EROSI
DBH3ko testu liburuak erosiko nituzke, EKI proiektukoak. Paketea, 15 euro. Telefonoa: 943 246 115.

BESTELAKOAK

HEZKUNTZA
Ingeles klaseak ematen dira, maila guztiak. Telefonoa: 693 601 222.

NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak soilik kobratuko dira, azoka txikiko iragarkiak doan izango dira


TAMAINA BERRIA

Modulo txikia. 12 € + BEZ barne publizitatea@ttakun.eus

TAMAINA BERRIA

Modulo handia. 20 € + BEZ barne publizitatea@ttakun.eus 646.824466

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea
Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 LASARTE-ORIA
G-20407557

Administraria
Nerea Garziarena.

Erredakzioa
Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez,
Maitane Aldanondo eta Beñat Lizaso.

Publizitatea
Irati Zatarain.

Laguntzaileak

Gorka Lasa, Mailu Arruti, Asier Odriozola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Maider Galardi, Mikel Yarza, Nerea Segura, Lierni Rekondo eta Aizpea Amas.

Banatzaileak

Ioar Gainza, Egoitz Epelde, Erlantz Ezeiza, Iñigo Garcia, Naiara Goikoetxea.

Informatika zerbitzuak
IZT Informatika.

PUBLIZITATEA

Geltoki kalea 4 (behea)
Tel.: 943 37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@txintxarri.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/94
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.000 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGÜISTICA



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.



LASARTE-ORIA Kultur Kale Zikloa. Musika Lasarte-Oriako auzoetara iritsiko da udan Kultu Kale Zikloari esker. Uztailean eta irailan, sei taldek euren doinuak eskainiko dituzte herriko hainbat plaza edo parketan. Aste honetan, Donostiako Apalatxe taldeak emango dio hasiera ekimenari Tximistarreta parkean. Zumaburu, Basaundi, Zabaleta, Atsobakar eta Okendo plazan izango dira hurrengo hitzorduak. Uztaila eta iraila, Lasarte-Oriako auzoetan.



LASARTE-ORIA Oriako Jaiak

Oriatarren egun handia iritsi da, Karmengo Amaren eguna. Auzoko kideek, urtero legez, euren zaindariaren ohorez jaiak antolatu dituzte. Adin guztietarako jarduerak izango dira egun osoan. Haur eta gaztetxoek ez dute aspertzeko astirik izango. Helduek usadiozko meza, toka txapelketa, Oriako Sorgin Dantza eta dantzaldia izango dute auzotarrentzat hain berezian den egunean. Egitarau zehaztua agendan ikusgai. Asteartea 16, Oriako auzoa.

OSTIRALA 12

LASARTE-ORIA Antzerkia

Etxea / Casa / Home kale antzerkia eskainiko du Aimar & Cia konpainiak. Kale Antzerkia bultzatuz ekimeneko jarduerara da.

Lana etxeari eta nortasun pertsonalari buruzko antzerki eta zirku ikuskizuna da. Ez du testurik eta publiko guztiari zuzendua dago.

Etxea / Casa / Home ikuskizunaren protagonista pertsonaia bitxia da. Gizaki guztiok behar dugu sentitzeko eta geure egiteko espazio bat: etxea. Bere kabia eraikitzeko pertsonaia nagusiak dituen mamuei aurre egin beharko die. Ondorioz, hazkuntza pertsonala ere izango du. Okendo plaza, 19:00etan.

ASTIGARRAGA Zinema kalean

Tomb Rider filma eskainiko dute *Zinema kalean* egitasmoan. Gaztelaniaz. Foru plaza, 22:30ean.

LARUNBATA 13

LASARTE-ORIA Tailerra

Txapa tailerra izango da haurren gozameneko. Zabaleta Auzolan elkarteak lagunduta. Udako tailerrak ekimeneko ekintza. Zabaletako frontoia, 11:30etik 13:30era.

LASARTE-ORIA Tailerra

Sukaldaritzako tailerra familian egingo da, Udaberri elkartearen laguntzarekin. 5 eta 12 urte arteko haur eta

gazteentzako tailerra da eta heldu batek lagunduta parte hartu behar dute. Izen ematea uztailearen 4an itxi zen. Udako tailerrak ekimeneko ekintza. Andatza Plaza, 11:30etik 13:30era.

LASARTE-ORIA Ipuin kontaketa

Udako tailerrak ekimena dela eta, haur guztien gozameneko ipuin kontaria izango da. Semblante Andaluz elkarteak lagunduta.

Golf plaza, Atsobakar auzoa, 12:00etatik 13:00etara.

LASARTE-ORIA Kontzertua

Apalatxe taldeak emango dio hasiera Kultur Kale Zikloari. Folka eta punka nahasten ditu taldeak. Kanean dituzten diskoetako doinuak eta abesti berriak eskainiko dituzte.

Tximistarreta parkea, 20:00etan.

ASTEARTEA 16

LASARTE-ORIA Oriako jaiak

Karmengo Amaren jaiak antolatu ditu La Esperanza bizilagun elkarteak:

10:30ean, Ttiriki Ttarraka trikitilari taldeak diana egingo du auzoko kaleetatik.

11:00etan, haurrentzako tailerrak, Karmengo Amaren kaperaren ondoan.

12:00etan, buruhandiak auzoko kaleetatik.

12:00etan, meza, Karmengo Amaren kaperara. Biyak Bat elkarteak abesbatzak girotuko du.

13:00etan, luntxa, Plazido Muxika plaza.

16:30ean, ur-pistola eta puxika gerra, Brunet-Enea lorategia.

17:00etan, Gaztelu puzgarriak eta aurpegiak margotzeko tailerra, Brunet-Enea lorategia. Udako tailerren ekimeneko saioa da tailerra.

17:00etan, Oriako II. toka txapelketa, Brunet-Enea lorategia.

17:30ean, haurrentzako askaria, Brunet-Enea lorategia.

17:30ean, Oriako Sorgin Dantzako desfilea Karmengo Amaren kaperara ondotik Brunet-Enea lorategira.

Ostean, Oriako Sorgin Dantza, Brunet-Enea lorategia.

18:30ean, Kangoo erakustaldia eta zumba master class-a, Brunet-Enea lorategia. Saito Gimnasioak eskainiko ditu saioak. 20:00etan, dantzaldia Ibai Berriak taldearekin, Brunet-Enea lorategiko kioskoan.

Oria auzoa, egun osoa.

LASARTE-ORIA Erakusketa

Karmelo Oñateren mendiko marrazkien erakusketa ikusgai izango da uztailearen 31ra arte.

Jalgi Kafe antzokia.

OSTEGUNA 18

LASARTE-ORIA Zinea

Campeones filma eskainiko dute Okendo zinema taldeak antolatutako udako zinema atalean (laburpena eta informazio gehiago ondoko koadroan). Okendo plaza, 22:15ean.



LABURPENA

Campeones

Zuzendaria: Javier Fesser. **Gidoilaria:** David Marques, Javier Fesser. **Herr.:** Espainia (2018). **Musika:** Rafael Arnau. **Argazkia:** Chechu Graf. **Antzezleak:** Javier Gutierrez, Juan Margallo, Luisa Gavasa, Jesus Vidal, Daniel Freire, Athenea Mata, Roberto Chinchilla, Alberto Nieto Ferrandez, Gloria Ramos, Itziar Castro. **Iraupena:** 124 minutu.

Bizitza aldatzen duten erabakiak

Javier Fesserren *Campeones* filma hainbat zinema jaialdietan ikusgai izan da. Donostiako Zinemaldian, esate baterako. Hiru Goya sari lortu zituen: pelikula onenaren saria, aktore berri onenaren saria (Jesus Vidal) eta abesti original onenarena (Coque Mallak sortua). Espainiako Oscar sarietarako hautagaia izan zen.

Marco saskibaloiko entrenatzaile profesionala da. Garai zailak bizi ditu. Lanetik botako dute. Istripu bat du edanda doala. Erabaki bat

hartu behar du, bi urteko espetze-zigorra edo 900 orduz gizarte-lana egitea. Bigarren hori aukeratu eta adimen urritasuna duten pertsonen osatutako saskibaloia talde bat entrenatzen hasiko da. Berak saskibaloian jokatzen irakatsiko die, baina ordainetan milaka gauza ikasiko ditu jokalariei esker.

Filma Aderes Burjassot elkartearen saskibaloia taldean oinarrituta dago. Espainiako txapelketa hamabi aldiz irabazi zuen 1999 eta 2014 urteen artean.

KOMIKIA



PUBLIZITATEA

**SANTA ANA
2019**

Barruan duzun artista ateratzeko garaia da

**Zatoz eta parte hartu
SANTA ANAKO
PARODIAN**

Entseguak: Uztailaren 16tik 19ra eta 23tik 25era 18:30etik 20:30era

uztailak 26

11:00etan
Santa Ana eguneko meza, Ama Brigitarren komentuan. Ostean, luntxa.

12:00etan,
Erketz EDTren dantza, Santa Ana karkaban.

22:30ean,
Santa Ana parodia. Okendo plazan.

943 37 14 48
kultura@ttakun.eus

ttakun
Kultur Ekortza

MERKEALDIA

Zatoz eta aprobetxa itzazu
VARILUX LENTEETAN
ditugun prezio paregabeak

Gure betaurreko guztiak
bilduma berrietakoak dira



Kontsultatu itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak.
Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.

R.P.S. 175/15 I.L.G.

Kale Nagusia, 15
Tel.: 943 37 74 55
LASARTE-ORIA

MULTIOPTICAS
lehen zerbitzu optikoetan

www.multioplicasgipuzkoa.com   